

**ARARTEKOAK KOORDINATZEKO
XXV. JARDUNALDIEN BEHIN
BETIKO ONDORIOAK**

**“Krisi ekonomikoaren eragina pertsonen
eskubideak gauzaterakoan”**

Egungo krisi ekonomikoaren eraginak bere isla izan du arartekoen jardueran, kontsulten, kexen eta ofiziozko jarduketan bitartez; izan ere, ekimen horietan nabarmenak dira krisiak pertsonen eskubideetan eta askatasun konstituzionaletan izan duen eragina.

Egoera horren aurrean, arartekook, Koordinazioko XXV. jardunaldi hauetan, gogoeta egin dugu krisi ekonomikoak pertsonen eskubideetan daukan eraginari buruz, eta ondorio batzuk ere atera ditugu, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen babesaren eta defentsaren arloan metaturiko esperientziaren eta eguneroko lanaren harira.

Dokumentu honek hiru zati dauzka:

- I. Sintomak. Zati honetan, arartekook gugana jotzen duten pertsonen profila eta kontsultatutako arloak eta kexen arrazoiak aztertu ditugu.
- II. Egoeraren diagnostika. Koiuntura ekonomiko honetan planteatzen diren arazo nagusietarako hurbilketa bat da.
- III. Ondorioak. Egoera honen aurrean, arartekoek botere publikoei, pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasunak bermatzeko, eginiko proposamenak biltzen dira.

I. SINTOMAK

Zati honek honako azpi-zatiak dauzka:

- Arartekoengana jotzen duten pertsonen profila.
- Krisia kontsultatutako arloen arabera edo kexen arrazoiaren arabera.

A) Arartekoengana jotzen duten pertsonen profila.

Oro har, arartekook bat gatoz esaterakoan ez dagoela krisiak bereziki ukitutakoaren profil zehatzik, zeren eta egoera ekonomiko honen ondorioak hain baitira askotarikoak, non, gutxi-asko, jende-multzo desberdinetan baitaizka ondorioak. Narriatze psikologikoa guztien elementu komuna izanen litzateke.

Halere, sistematikoak izan nahi badugu, gure erakundeengana jo eta krisiak ukitutako pertsonen honako profilak bereiz ditzakegu: langabetuak; langile autonomoak eta enpresa txikien titularrak; langabezian dauden eta prestakuntzarik ez duten adin ertaineko emakumeak; gizarte zerbitzuen erabiltzaileak; larrialdiko egoeretan dauden pertsonak eta kolektiboak; immigranteak; adineko pertsonak eta pentsiodunak; eta, berriki, sektore publikoan lan

egiten duten pertsonak, 8/2010 Errege Dekretu Legearen aplikazioaren ondorioz.

B) Krisia kontsultatutako arloen arabera edo kexen arrazoen arabera.

Krisi ekonomikoa arartekoen bulegoek aztertutako gaietan ere nabaritu da. Arloen araberako honako multzoak egin ditzakegu; horietako bakoitzean, aipagarrienak baizik ez ditugu aipatuko:

- Gizarte ongizatea: laguntza ekonomikoak eta sorospen laguntzak ukatzea edo jasotzerakoan atzeratzea; aurrekontuetan diru nahikorik ez izatea demandari aurre egiteko, gora egin baitu; gizarte entitate eta sorospen entitate pribatuen finantzaketa publikoan eginiko mozketak; gizarteratzeko gutxieneko errentarako prestazioak eta larrialdi sozialeko prestazio ekonomikoak, besteak beste.
- Etxebizitza: alokairurako laguntzetarako premia; alokairu-araubideko behar adina BOE ez egotea; BOEak adjudikatu eta amaieran haiek erosteko mailegurik ematen ez dieten pertsonak, gero adjudikazio horri ezezkoa emateko beharrean suertatzen direnak eta horrengatik zigorra jasotzen dutenak; atzerapena emantzipaziorako oinarrizko errenta kobratzerakoan; muturreko egoera eta egoera etsigarriak

maizter-botaketa eta bahitura kasuetan; banku eta kutxekiko gatazkak eta abar.

- Lana: enpresek hondoa jotzea; kasu gehienek zuzeneko nahiz zeharkako eragina dutela eraikuntzaren sektorearekin (soldatak eta aparteko orduak ez ordaintzea, ados ez egotea lanetik kanporatzeagatik); enplegu erregulazioko espedienteak onesteko prozedurarekin ados ez egotea; laguntza publikorik ez egotea autonomoen araubidean lan egiten duten eta "langabezian" dauden langileentzat eta bereziki ahulak diren kolektiboetako langabetuak (adinarengatik, prestakuntzarengatik eta abararengatik); enpresa txikien eta langile autonomoen zailtasun ekonomikoak (Gizarte Segurantzari eta Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziari ez ordaintzea); lan zerbitzu publikoetako bulegoetako itxaron zerrendak; estatuko lan zerbitzu publikoaren eta zerbitzu autonomikoen arteko koordinazio falta; eta prestazio ekonomikoei, prestakuntza ikastaroei, auto-enplegurako laguntzei eta abarrei buruz emaniko informazioan hutsak egotea, besteak beste.
- Gizarte Segurantza: ados ez egotea aitortutako pentsioetan izaniko igoera txikiekin; desadostasuna langabeziarengatiko subsidioa ukatzearekin eta kotizazio aldien zenbaketarekin; beharrik gabeko diru-sarrerak itzultzeko atzerapenak eta

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak oker emandako prestazioengatiko erreklamazioak, besteak beste.

- Administrazio publikoak: lan eskaintza publikoa geraraztea edo gutxitzea eta oposizioak egiten dituzten pertsonen kopuruak gora egitea; aurrekontu murrizketak eta prestakuntza- eta enplegu-planen kudeaketa txarra; administrazio publikoek kontratatutako enpresei berandu ordaintzea, eta horrekin profesional askoren biziraupena auzitan jartzea (besteak beste, autonomoak eta enpresa txikiak).
- Justizia: atzerapena krisiarekin zuzenean nahiz zeharka lotutako prozesu judizialak izapidetzerakoan (zenbatekoen erreklamazioak, maizter-botaketak, epai konkurtsalak eta abar).

II. EGOERAREN DIAGNOSIA

Krisi ekonomikoaren ondorio nagusienetako bat izan da gora egin duela enpresak ixtearen eta jarduera ekonomikoa geraraztearen ondoriozko langabeziak. Langabezia Espainiako herritarren lehenengo arazoa da, populazio aktiboaren % 20 gainditzen baitu. Egoera horrek berarekin ekarri du pertsona askok ezinezko izatea finantza-entitateekin harturiko zorrei aurre egitea. Egoera hori bereziki larria da etxebizitza erosteko harturiko hipoteka-kredituen kasuan. Langabeziak eragina

izan du kontsumoaren jaitsieran, eta horrek, bere aldetik, eragina izan du jarduera ekonomikoan, enpresa asko itxi baitira. Azkenean, horren ondorioz, gurpil gaizto bat sortzen da.

Langabeziak gora egitea eta lanpostuen suntsitzeak eragina izan dute, halaber, esku-hartze publikoaren premia duten pertsonen gora egitean, eta horrek gastu publikoa handitzea ekarri du.

Defizit publikoak berarekin ekarri du gizarte ongizatearen estatuaren egoeraren bereizgarri diren politika publikoetarako kontusailetan murrizketak egitea: osasun publikoa; hezkuntza, gizarte gaien arloko oinarrizko errentak; langabeziarengatiko prestazioak; erretiro- eta alarguntasun-pentsioak eta ikerketarako eta teknologiarako baliabideak; inbertsio publikorako baliabideak, eta inbertsio pribatua sustatzeko baliabideak (I+G+I).

Horrekin lotu beharra dago administrazio publikoen artean deskoordinazioa egoteko beti dagoen arriskua; deskoordinazioak, izan ere, kalte egiten dio emandako zerbitzuen kudeaketari eta, gainera, gastu publikoak gora egitea eragiten du. Herritarrek eskubidea dute beren zergak ongi kudea daitezen eta gastu publikoak, beti, jasotako zerbitzu publikoak hobetzea ekar dezan.

Azaldutako guztiarekin bat, arartekoen erakundeok, herritarren eskubide eta askatasun konstituzionalen bermatzaileak garen aldetik,

bidezkotzat jotzen dugu gaiari hurbilketa errealista baten ikuspuntutik heldzea, egun gaudeneko testuinguruari bizkarra eman gabe, eta jakinik gizartearen eskakizunak zein diren eta haiei erantzuteko baliabide publikoak urri direla. Horrekin, gure ikuspegia eman nahi dugu ikuskatzen ditugun botere publikoek arazoari heltzeko konponbideak bilatze aldera egin beharko lituzketen urratsei buruz.

III. ONDORIOAK

Egoera ekonomiko eta sozial horren aurrean, arartekook honako ondorioak atera ditzakegu.

1. Ararteko gisa gure izateko arrazoiak berekin dakar guztiz sinestea botere publikoek finantzen merkatua modu erabakigarrian arautu eta ikuskatu beharko luketela, eta hori eragingarri nagusi bat izanen litzatekeela orain pairatzen ari garena bezalako egoera kritikoak saihesteko, eta araupetze hori gidatu beharko litzatekeela pertsonen eskubideak bermatzera eta estatu sozialaren printzipioak sustatzera.
2. Krisi ekonomikoak ezin du berarekin ezinbestez ekarri estatu sozialaren eskubideen gutxitze bat. Botere publikoek osasunaren, hezkuntzaren, langabeziaren babesa eta gizarte zerbitzuen babesa ziurtatu behar dituzte, bereziki ahaztuta izateko edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku handiena duten pertsonen alde eginez.

Kontusailetan jasotako zenbatekoek behar adinakoak izan behar dute eskubideekin lotutako programa sozialei ekin ahal izateko, eta funtsezkoa da lehentasunak ezartzea: oinarrizko prestazioak lehenetsi prestazio gehigarrien aurretik.

3. Hezkuntza aparteko tresna bat da aukeren berdintasuna eta ekitatea lortzeko, eta gure agintarien berariazko arreta eskatzen du, bai eta arartekoen ikuskatze oso aktiboa ere, hezkuntzaren arloko prestazioak gal daitezten edo balioa ken dakien saihesteko.

4. Administrazioek eta beren organoek modu koordinatuan jardun behar dute eta konfiantza sortu behar dute. Komenigarria litzateke eztabaida bat zabaltzea sektore publikoaren ereduari buruz, zertarako eta administrazio modernoagoa, gardenagoa eta eraginkorragoa lortzeko, eta administrazio horrek pertsoneri zerbitzu hobek emateko.

Administrazioaren gardentasunak eta argitasunak eskatzen dute ezen, laguntzen arloan, haietarako dei egiten duten entitateen aniztasuna ikusita, dauden laguntzetarako deialdi guztien informaziorako tresna zentralizatu bat ezar dadila, pertsonentzat, familientzat eta enpresentzat. Izan ere laguntza horiek emateak erraz gertatu behar du, bai izapidetzearen aldetik, bai haiek lortzearen aldetik ere.

5. Botere publikoek langabetuen gutxieneko beharren babesak ziurtatu behar dute, eta prestakuntza programak ezarri behar dituzte langabetuak azkar has daitezten berriz ere lanean.

Lan arloko agintariek enplegu erregulazioko espedienteak onesteko kontrol zorrotzak ezarri beharko dituzte, bidegabeko kaleratzeak exekutatzeko tresna bihur ez daitezzen.

6. Diru-sarrera publikoak behar izateak ezin ditu tributusistemaren justiziaren eta progresibotasunaren printzipioak kaltetu, eta iruzur fiskalaren aurkako borroka indartu beharra dago.

7. Etxebizitzarako eskubidearen eraginkortasuna eta zabaltzea indartu behar dira, eta arreta berezia eskaini behar zaie premia berezia duten kolektiboari, haientzat ziurtatuz zoruak egiaz duen eginkizun soziala, Konstituzioak babestutakoa, bete dezala.

Etxebizitza babestuak adjudikatzeko prozesuetan, publizitatea, lehia eta gardentasuna ziurtatu behar dira, eta irizpide objektiboetan eta lehentasunezko kolektiboen kupoetan oinarritutako baremo bat ezarri beharra dago. Halaber, Administrazioaren ikuskapenak areagotu behar dira, ziurtatze aldera etxebizitza babestuen erosleek edo maizterrek dagozkien betebeharrak betetzen dituztela, eta arau-hausteak zehatzeko.

8. Hiriguneen hazkunde arrazionala bilatu beharko da, eta baztertzearekin lotutako segregazio partzialeko prozesuak saihestu beharko dira; halaber, jada eraikita dauden

etxebizitza erabilera bultzatuko da. Horri dagokionez, hirigintza- eta etxebizitza-planek lehentasuna eman beharko liokete lehendik dagoen etxebizitza parkea berriz erabiltzeari, eta barne erreformak erraztu beharko lirateke, merkatuak xurgatu ez dituen etxebizitza libreak babestutako etxebizitza bihurtu beharko lirateke, eta, oso bereziki, etxebizitza alokairua bultzatu beharko litzateke.

9. Immigranteek gizarte eskubideak eta ororentzako zerbitzuko publiko guztiak eskuratzeko bideari eutsi beharko litzaioke, xenofobia edo arrazakeria oldarrak guztiak saihestuz.
10. Gastu publikoaren murrizketak ez luke ekarri beharko, krisi garaietan, premia handiena duten kolektiboen aldeko gizarte intereseko jarduerak garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitate pribatuentzako babesa nabarmenki murriztea.
11. Toki administrazioa egunero bere zerbitzu publikoak eskatzen dituzten pertsonengandik hurbilen dagoena denez, presakoa da udal finantziario sistema bat ezartzea, toki entitateek beren jardura aurrekontuen kargura ziurtatua izan dezaten, xede jakineko finantziarioa saihestuz.

DOKUMENTUA IXTEKO AMAIERAKO GOGOETA: Hemen bildutako arartekook konpromisoa hartzen dugu 2010. urtea Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Urtea dela dioen adierazpenaren printzipio eta helburuak geure gain hartzeko eta haien zabalkundea bultzatzeko, gizarte eskubideak defendatu eta ziurtatzeko bide gisa.

